


## Infernuko hesteetan



### ***Infernuko hesteetan***

Jatorrizko izenburua: Septugenarian stew

Egilea: Charles Bukowski

Itzultzailea: Mikel Olano

Argitaratze urtea: 2008

Argitaletxea: Elkar

### MIKEL GARMENDIA

Zail da, zail denez, Bukowskiri eta bere obrari buruz gauza berririk esatea. Ameriketara izandako poetarik onenentzat dute batzuk. Onena ez bada, onenetakoa bai, behintzat.

Poesia zuzena, alferrikako apaindurarik gabea, kontzesiorik gabea, zainetik zuzenean sartzen zaizuna, barrua mugiarazi eta zure lekuan jartzen zaituena, inongo menpekotasunik gabe, norbera errealitatearen aurrez aurre. Errealismo zikina deitu izan zaio eta benetan zalantzan jartzeko modukoa dela esango nuke *zikin* adjektiboa, errealitatea den bezalakoa baita ez zikina, ez garbia. *Zikin* adjektiboaren ordez beste bat jartzen hasiz gero, nik *zintzo* aukeratuko nuke, horra, errealismo zintzoa. Zintzotasuna baita, *Infernuko hesteetan* izeneko poema-liburuxka irakurri ondotik gelditzen den sentazioa, edo benetakotasuna nahiago bada. Basatia? Bai, halakoxea hartu baitzuen lagun mintzat: alkohola. Zintzoki eta benetan esaten baitigu Bukowskik poemotan nola joan zen minbiziak jotako ama bisitatzerara, nola ikusten dituen gainerakoak, nola ikusten dituen emakumeekin izan dituen harremanak, nola ikusten dituen beste idazleak, historian zehar izandako poetak, nola ikusten duen lana, langileak...

Mikel Olanoren eskutik heldu zaigun bertsioa ere -itzulpena, alegia- halakoxea dugu zuzena, konplexurik gabea, naturala, hitz ondo aukeratuez egina... Olanok berak idatziak direla ematen du.

Bidaia labur bezain sakona, daramagun zoramenezko bitzita honetan geldialdi txiki bat egin eta nor bere buruarekin egoteko parada ezin hobea dugu poema-liburuxka polit hau, gogorra eta aldi berean samurra. Luzamendutan aritzeak baino askoz hobeki piztuko dio beharbada nahi duenari liburu hau irakurtzeko gogoia ondorengo poemak, *Kausa eta ondorioa* izenekoak:

onenek maiz beren burua akabatzen dute,  
ihes egiteko bestetarako ez,  
eta atzean geldituriko horiek  
ezin dute sekula ulertu  
zer dela eta inork  
ihes egin nahi  
ote duen inoiz  
beraien  
gandik.